



BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN ETA ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN ARTEKO HITZARMENA, ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN ERROLDAKO DATU BASERA SARTZEKO.

CONVENIO ENTRE EL DEPARTAMENTO FORAL DE HACIENDA Y FINANZAS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA PARA EL ACCESO A LA BASE DE PADRÓN DEL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA

ELKARTU DIRA

REUNIDOS

Alde batetik, Itxaso Berrojalbiz Zabala andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputata, diputatu nagusiaren uztailaren 6ko 170/2023 Foru Dekretuaren bidez egindako izendapenaren ondorioz (BAO, 131. zk., 2023ko uztailaren 7koa).

De una parte, doña Itxaso Berrojalbiz Zabala, Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud del nombramiento formalizado por Decreto Foral 170/2023, de 6 de julio de la Diputada General (B.O.B. nº131, de 7 de julio de 2023).

Eta bestetik, Cristina Casaseca Polo andrea, Estadistikako Institutu Nazionalen Biztanleriaren Estadistikako zuzendari nagusia, abenduaren 10eko 1262/2024 Errege Dekretuaren bidez izendatua. Erakunde horren ordezkari gisa jarduten du, eskumenak eskuordetzen dituen Estadistikako Institutu Nazionalaren Lehendakariaren 2024ko ekainaren 19ko Ebazpenaren bigarren ataleko 1. f) puntuan ezarritakoarekin bat etorriz (ekainaren 27ko BOE, 155. zk.).

Y de otra, doña Cristina Casaseca Polo, Directora General de Estadísticas de la Población del Instituto Nacional de Estadística, nombrada mediante Real Decreto 1262/2024, de 10 de diciembre, actuando en representación del citado Instituto, de conformidad con lo establecido en el apartado segundo, punto 1. f), de la Resolución de 19 de junio de 2024 de la Presidencia del Instituto Nacional de Estadística, por la que se delegan competencias (BOE núm. 155, de 27 de junio).

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, hartara, hau,

Reconociéndose las partes la capacidad legal necesaria para firmar el presente Convenio, a tal efecto,

AZALTZEN DUTE

EXPONEN

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Foru Sailak Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko tributuak eta zuzenbide publikoko sarrerak kudeatu, ikuskatu eta biltzeko eskumenak ditu; eskumen

El Departamento Foral de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo con el marco de competencias que establecen el Estatuto de Autonomía de Euskadi, aprobado por la Ley Orgánica





horiek Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onetsia), Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean (maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsia), Bizkaiko Batzar Nagusiek onartutako Foru Arauetan eta gainerako ordenamendu juridikoan jasotako esparru arautzailean ezarritakoarekin bat datoz. Bizkaiko Foru Ogasunari dagokio Bizkaiko zerga-sistema hari lotutako pertsona guztiei oro har eta eraginkortasunez aplika dakien beharrezko administrazio-jarduketara guztiak egitea, zeinek ez baitute zertan izan beti egoiliar lurralde historikoko eremuan.

BFOk bere funtzioak betetzeko behar duen informazioa – Estatuko Ogasun Publikoari aitortu zaizkion ahalmen eta prerrogatiba berak ditu horretarako-, ezin da mugatu ohiko bizilekua Bizkaian duten pertsonetara, haren eskumenak lurralde honetatik harago doazelako.

Alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak honela xedatzen du 1. Hiru artikuluan: “Lurralde historikoetan tributu itunduak kudeatu, ikuskatu, berrikusi eta biltzeko eskumena duten erakundeek Estatuko Ogasun Publikoak dituen ahalmen eta eskubide berak izango dituzte”.

Bestalde, martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, honako hau ezartzen du 5.3 artikuluan: “Foru Aldundiak Estatuko lurralde osoan baliatuko ditu tributuak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko dituen eskumenak, Ekonomia Itunean ezarritako terminoetan”.

Ondorioz, BFOk bere zerga-eginkizunak betetzean dituen eskumenen eremua zerga-egoitza edo ohiko bizilekua bere lurraldetik kanpo duten zergapekoetara ere zabal daiteke, Ekonomia Itunak hala zehazten duen kasuetan, bertan araututako lotura-puntuen arabera.

3/1979, de 18 de diciembre, el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por Ley 12/2002, de 23 de mayo, las Normas Forales de las Juntas Generales y el ordenamiento jurídico general, ejerce las competencias relativas a la gestión, inspección y recaudación de los tributos y de los ingresos de derecho público, cuya titularidad ostenta la Diputación Foral de Bizkaia. Corresponde a la Hacienda Foral de Bizkaia (en adelante, HFB) realizar las actuaciones administrativas necesarias para que el sistema tributario de la Diputación Foral de Bizkaia se aplique con generalidad y eficacia a todos los obligados tributarios, los cuales no necesariamente son residentes en el ámbito del Territorio Histórico.

La información que precisa la HFB para el desempeño de sus funciones, -para lo cual dispone de las mismas facultades y prerrogativas que tiene reconocidas la Hacienda Pública del Estado-, no ha de circunscribirse a las personas que tienen su residencia habitual en su territorio, debido a que sus competencias se extienden más allá de éste.

En este sentido, el artículo 1.Tres del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco dispone que: “*Para la gestión, inspección, revisión y recaudación de los tributos concertados, las instituciones competentes de los Territorios Históricos ostentarán las mismas facultades y prerrogativas que tiene reconocidas la Hacienda Pública del Estado*”.

Por otro lado, el artículo 5.3 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo de 2005, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia establece que: “*La Diputación Foral ejercerá sus competencias en materia de aplicación de los tributos y de imposición de sanciones en todo el territorio del Estado en los términos establecidos en el Concierto Económico*”.

En consecuencia, el ámbito de competencias de la HFB en el ejercicio de sus funciones tributarias puede extenderse a aquellos obligados tributarios que tengan su domicilio fiscal o residencia habitual fuera de su territorio en los supuestos que así lo determine el Concierto Económico, atendiendo a los puntos de conexión regulados por el mismo.





Besteak beste, hauek:

a) Zerga ordainarazteko eskumena zer Administrazioari dagokion zehazteko, Ekonomia Itunak ohiko bizilekua erabakigarria dela jotzen du zenbait kasutan. Hala gertatzen da, esaterako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan (6.Bat art.) Baina, zerga horren barruan ere, zenbaitetan beharrezko gertatzen da jakitea non duen subjektu pasiboak ohiko bizilekua Bizkaitik kanpo, eta kasu horiek dira urte naturalean zehar ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago zein lurraldetan ematen dituen zehaztu behar denean (43. art), edo familia unitatea osatzen duten zergadunek ohiko bizilekua lurralde desberdinetan eduki eta batera tributatzea aukeratzen dutenean (6.Bi art.).

b) Beste kasu batzuetan, zerga ordainarazteko eskumena zer administrazioari dagokion zehazteko aintzat hartzen den konexio puntua ez da ohiko bizilekuarena, eta, beraz, konexio puntu hori betetzen bada, BFO eskudun izango da zergapekoaren zerga egoitza Bizkaian egon edo ez. Hona hemen kasuak:

b.1) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga: «mortis causa» eskurapenetan eta bizitza aseguruaren onuradunek heriotza kasuetan jasotzen dituzten kopuruetan, kausatzailearen ohiko bizilekua hartzen da kontuan, ez subjektu pasiboarena (25.Bat.1 art.); eta ondasun higiezin eta haien gaineko eskubideen dohaintzetan, ondasunak non dauden kokatuta begiratzen da (25.Bat.b art).

b.2) Lan etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak: Bizkaiko Foru Ogasunak horrelakoak exijituko ditu lanak edo zerbitzuak Bizkaian egiten direnean (7.Bat.a art.), eta Administrazio kontseiluetako, horien ordezkari batzordeetako eta beste ordezkari organo batzuetako administratzaileek eta kideek jasotzen dituzten ordainsarien kasuan, entitate ordaintzailearen zerga

Entre otros:

a) En algunos supuestos considera determinante la residencia habitual para determinar la Administración tributaria competente para la exacción del impuesto. Tal es el caso del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (art. 6 Uno). Pero incluso en este impuesto, es preciso conocer en determinados supuestos cuál es el lugar de residencia habitual fuera del Territorio Histórico de Bizkaia: para determinar el territorio en el que el sujeto pasivo permanece más de ciento ochenta y tres días durante el año natural (art. 43) o en los casos en los que los contribuyentes integrados en una unidad familiar tuvieran su residencia habitual en territorios distintos y optasen por la tributación conjunta (art. 6.Dos).

b) En otros supuestos, el punto de conexión considerado para determinar la Administración tributaria a la que corresponde la exacción difiere del de la residencia habitual, de tal forma que si se cumple tal punto de conexión, la HFB resultará competente, con independencia de que el domicilio fiscal del obligado tributario se ubique en su territorio, entre otros:

b.1) Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones: en las adquisiciones «mortis causa» y las cantidades percibidas por los beneficiarios de seguros sobre la vida para caso de fallecimiento, se tiene en cuenta la residencia habitual del causante, no la del sujeto pasivo (art. 25.Uno.a) o en las donaciones de bienes inmuebles y derechos sobre los mismos, es determinante el lugar donde los bienes radiquen (art. 25.Uno.b).

b.2) Retenciones e ingresos a cuenta por rendimientos del trabajo: se exigirán, por la HFB cuando los trabajos o servicios se presten en Bizkaia (art. 7.Uno.a) o, en relación con las retribuciones que se perciban por la condición de administradores y miembros de los Consejos de Administración, de las Juntas que hagan sus veces y de otros órganos representativos, cuando la entidad pagadora –no el





egoitza –ez jasotzailearena– Bizkaian dagoenean (7.Bat.c art.).

b.3) Atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko eskumena BFOrena bada, egindako atxikipenen eta konturako sarreraren laburpenak hartzen dituzten aitopenen jasotzeko eskumena ere harena izango da (46. art.).

b.4) Balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, kontua hartuko da, batik bat, non egiten dituzten subjektu pasiboek beren eragiketak (27. art.).

b.5) Kostu bidezko eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga: ondasun higiezin errentamenduetan eta kostu bidezko eskualdaketen, eta ondasun horien gaineko eskubide errealak –baita bermekoak ere– kostu bidez eratu edo lagatzen direnean, eskumena BFOrena izango da ondasun horiek Bizkaian daudenean (31. Art.).

Beste alde batetik, bizikidetzari buruzko datuak eskuratzeko beharra ezinbestekoa da zergadunek aitopenetan kontsignatu eta balia ditzaketen kenkari-mota desberdinen jatorria zehazteko, hala nola: kenkari familiarrak eta pertsonalak (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren (aurrerantzean, PFEZF) 79., 81. eta 82. artikulua); ohiko etxebizitzagatiko kenkariak (PFEZFaren 87. artikulua); baita konpentsazio-pentsioengatiko murrizketak eta elikagaiengatiko urterokoak eginez likidazio-oinarria kalkulatzeko ere (PFEZFaren 69. artikulua).

Halaber, bizilekuari eta bizikidetzari buruzko datuak funtsezkoak dira familia-unitatea zehazteko eta zergak ordaintzeko aukerak baloratzeko gurasoengandik edo adoptatzaileengandik independente bizi diren seme-alaba adingabeen kasuan (PFEZFaren 98. artikulua) edo familia-unitate bateko kideak lurralde desberdinetan bizi eta zergak batera ordaintzea aukeratzeko duten kasuetan (PFEZFaren 97. artikulua).

receptor de la retribución- tenga su domicilio fiscal en Bizkaia (art. 7.Uno.c).

b.3) Cuando la HFB es competente para la exacción de las retenciones e ingresos a cuenta, lo será, asimismo, para la recepción de las declaraciones que incluyan los resúmenes de las retenciones e ingresos a cuenta practicados (art. 46).

b.4) En relación con el Impuesto sobre el Valor Añadido se tendrá en cuenta, fundamentalmente, el lugar en el que operen los sujetos pasivos (art. 27).

b.5) Impuesto sobre Transmisiones Onerosas y Actos Jurídicos Documentados: en las transmisiones onerosas y arrendamientos de bienes inmuebles y en la constitución y cesión onerosa de derechos reales, incluso de garantía, que recaigan sobre los mismos, será competente la HFB cuando éstos radiquen en su territorio (art. 31).

Por otra parte, la necesidad de acceso a datos de convivencia resulta imprescindible para la determinación de la procedencia de distintos tipos de deducciones que los contribuyentes pueden consignar y disfrutar en sus declaraciones como: las deducciones familiares y personales (artículos 79, 81 y 82 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en adelante NFIRPF); las deducciones por vivienda habitual (artículo 87 de la NFIRPF); así como para el cálculo de la base liquidable mediante la práctica de reducciones por pensiones compensatorias y anualidades por alimentos (artículo 69 de la NFIRPF).

Asimismo, los datos de residencia y de convivencia son fundamentales a la hora de la determinación de la unidad familiar y la valoración de las opciones de tributación en los casos de hijos e hijas menores que vivan independientes de sus progenitores o adoptantes (artículo 98 del NFIRPF) o en aquellos supuestos en los que los miembros de una unidad familiar residen en territorios distintos y opten por la tributación conjunta (artículo 97 del NFIRPF).





PFEZri dagokionez, Bizkaiko Foru Ogasunak kudeaketa-, ikuskapen- eta zerga-eginkizunak betetzeaz gain, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergadunei laguntza eta informazioa emateko funtzioa betez PFEZaren aitopenearen zirriborroak sortzen ditu, horretarako eskura dituen datuen arabera. Erakundeak, horrela, aitopena aurkezteko betebeharra betetzea errazten du, zergadunek ez baitute zerga-araudia ezagutu behar autoliquidazioa aurkezteko; aitzitik, zirriborroak beharrezko datu pertsonal, familiar eta ekonomiko guztiak dituela berrikusi, zirriborroa aldatu edo osatu eta aitopena aurkeztu besterik ez dute egin behar.

Are gehiago, lurralde erkidean Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari dagokion araudia aplikatuko da kausatzailea, aseguratu edo dohaintza-hartzailea lurralde erkidean egun gehiagotan egon bada aurreko 5 urteetan, zergaren sortzapen-datatik zenbatzen hasita (Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauaren 2. artikulua) eta, era berean, ezin da alde batera utzi Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 38. artikulua aipatzen duen erantzukizunaren muga, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 21. artikulua aplikatu behar zaien oinordekoei bakarrik aplikatzeko.

Azkenik, ezkontzak eta izateko bikoteak legez parekatzeak, horrek dakartzan zerga-ondorioekin, agerian uzten du bizilekuari eta bizikidetzari buruzko datuak izateko beharra, hain zuzen ere izateko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, egoitza komuna ezartzea "sine qua non" baldintza delako izateko bikoteen erregistroan inskribatzeko, eta inskripzio hori eratzailea izango da.

Estatistikako Institutu Nazionala (aurrerantzean, INE), Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioari adskribatutako organismo autonomo bat da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari

En relación con el IRPF la Hacienda Foral de Bizkaia no solo ejerce las funciones de gestión, inspección y recaudación sino que en ejercicio de la función de asistencia e información a las y los contribuyentes del Territorio Histórico de Bizkaia genera los borradores de declaración del IRPF en función de los datos de los que dispone, facilitando de esa forma el cumplimiento de la obligación de presentación de la declaración ya que las y los contribuyentes no necesitan conocer la normativa tributaria para presentar su autoliquidación sino que simplemente deben revisar que el borrador contiene todos los datos personales, familiares y económicos necesarios, modificar o completar el borrador y presentar la declaración.

A más abundamiento, será de aplicación la normativa que corresponda del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones en territorio común cuando el causante, asegurado, o donatario hubiera permanecido en territorio común un mayor número de días del período de los 5 años inmediatos anteriores, contados desde la fecha de devengo del Impuesto (Artículo 2 de la Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones) y tampoco puede obviarse la limitación de la responsabilidad a la que se refiere el artículo 38 de la Norma Foral General Tributaria, aplicable únicamente a los herederos a los que les resulta de aplicación el artículo 21 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco.

Por último, la equiparación legal de los matrimonios y las parejas de hecho, con los consiguientes efectos tributarios que ello conlleva, evidencia la necesidad de contar con datos de residencia y de convivencia, puesto que, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho, el señalamiento de un domicilio común constituye un requisito "sine qua non" para su inscripción en el Registro de parejas de hecho, teniendo dicha inscripción carácter constitutivo.

El Instituto Nacional de Estadística (en adelante INE) es un Organismo autónomo de los previstos en el artículo 84.1a) de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, adscrito al





buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 84.1.a) artikuluan aurreikusia. Haren eginkizunak Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legeak esleitutakoak dira, eta haietako bat da Estatistika Plan Nazionalak agintzen dizkion estatistika eragiketak gauzatzea eta berariaz esleitzen zaizkion bestelako estatistika jarduketak egitea. Eta, biztanleen udal eroldari dagokionez, lege horrek igortzen gaitu toki araubidearen legerian INEren eta toki korporazioen arteko erlazioa arautzen duten erregela berezietara.

Horrela, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 17.3 artikuluan ezartzen du udalek beren eroldako datuak bidali behar dizkiotela INEri, erregelamenduz ezarritako eran, udalerriguztietako erolden arteko koordinazioa burutu ahal izan dadin.

II

BFOk beharrezkoa du INEk koordinatzen duen eroldako datu- basetik datu pertsonal eguneratuak, baita historikoak eta bizikidetzakoak ere, eskuratzea zerga arloan esleitu zaizkion funtzioak eraginkortasunez betetzeko. Besteak beste, funtzio horien artean daude zergapekoei jakinarazpenak egitea bai informazio jarduketetan bai haiek parte diren zerga prozeduretan, eta, orobat, zergapekoen zerga egoitza kudeatzeko garaian Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arauaren 47. artikuluan xedatutakoa aplikatzea, betiere zerga eroldak osatu eta mantentzeko, hori guztia aipatu dugun martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arauaren 115. artikulua eta Bizkaiko Lurralde Historikoan zerga betebeharrak jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretu bidez onartuak, 3. eta 11. Artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Ministerio de Economía, Comercio y Empresa, que tiene, entre las funciones que le encomienda la Ley 12/1989, de 9 de mayo, de la Función Estadística Pública, las de ejecución de las operaciones estadísticas que le confiere el Plan Estadístico Nacional, así como cualesquiera otras actividades estadísticas que le sean expresamente encomendadas. Y, en lo que concierne al Padrón municipal de habitantes, remite a las reglas especiales que ordenan la relación entre el INE y las Corporaciones Locales establecidas en la legislación de régimen local.

Así, la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, establece en el artículo 17.3 la remisión por parte de los Ayuntamientos al INE de los datos de los Padrones municipales, en la forma en que reglamentariamente se determine, a fin de que pueda llevarse a cabo la coordinación entre los Padrones de todos los municipios.

II

La HFB precisa disponer de datos personales actualizados, así como históricos y de convivencia, procedentes de la base padronal que coordina el INE para el eficaz desempeño de las funciones tributarias que tiene atribuidas, entre otras, poder realizar las tareas que tiene encomendadas destinadas a la notificación de los obligados tributarios en las actuaciones de información y en los procedimientos tributarios en los que éstos sean parte, así como poder aplicar lo dispuesto en el artículo 47 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, en la gestión del domicilio fiscal de los obligados tributarios, a los efectos de la elaboración y mantenimiento de los censos tributarios según lo previsto en el artículo 115 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y los artículos 3 y 11 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre, por el que se regulan las obligaciones tributarias formales en el Territorio Histórico de Bizkaia.





Era berean, informazio historikoa izan behar du zergak behar bezala aplikatzeko. Informazio hori, oro har, dagozkion zergapeko egitateak sortu ondoren gertatzen da; bai eta bizikidetzari buruzkoa ere, aurreko I. AZALPENEAN adierazitako manuetatik ondorioztatzen den bezala.

Martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 93. artikuluan xedatzen duenez, «Agintariak, izaera edozein dutela ere, lurralde historikoetako, autonomia erkidegoetako, estatuko eta toki entitateetako titularrak; organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak; ganberak eta profesionalen korporazio, elkargo eta elkarteak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestora barne, eta, oro har, funtzio publikoak egiten dituztenak, behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen dizkien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga Administrazioari eta haren agenteei euskarri, laguntza, sorospen eta babesa ematera beren eginkizunak bete ditzaten.»

Era berean, martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arauak honako hau dio 93. artikuluko 5. puntuan: «Aurreko artikuluan, artikuluko honetako aurreko apartatueta edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari laga behar zaizkion datu pertsonalak emateko, ez da ukitutako pertsonaren baimenik beharko.»

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 16.3 artikulua bitartez arautzen du Erroldako datuen lagapena, eta, honela dio, zehazki: «Udal erroldako nahitaezko datuak ukitutako pertsonaren alde aurreko baimenik gabe emango zaizkie eskatzen dituzten administrazio publikoei, bakar-bakarrik beren eskumenak

Asimismo, precisa disponer de información histórica para la correcta aplicación de los tributos, la cual, con carácter general, se produce una vez devengados los correspondientes hechos imposables, así como de convivencia, tal y como deriva de los preceptos indicados en el EXPONEN I anterior.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 93 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, “Las autoridades, cualquiera que sea su naturaleza, los titulares de los órganos de los Territorios Históricos, de las Comunidades Autónomas, del Estado y de las Entidades Locales; los organismos autónomos y las entidades públicas empresariales; las cámaras y corporaciones, colegios y asociaciones profesionales; las mutualidades de previsión social; las demás entidades públicas, incluidas las gestoras de la Seguridad Social y quienes, en general, ejerzan funciones públicas, estarán obligados a suministrar a la Administración tributaria cuantos datos, informes y antecedentes con trascendencia tributaria recabe ésta mediante disposiciones de carácter general o a través de requerimientos concretos, y a prestarle, a ella y a sus agentes, apoyo, concurso, auxilio y protección para el ejercicio de sus funciones”.

Asimismo, como indica el punto 5 del artículo 93 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo de 2005, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia: “La cesión de datos de carácter personal que se deba efectuar a la Administración tributaria, conforme a lo dispuesto en el artículo anterior, en los apartados anteriores de este artículo o en otra norma de rango legal, no requerirá el consentimiento del afectado”.

La Ley de Bases de Régimen Local rige la cesión de los datos del Padrón a través del artículo 16.3 según el cual “Los datos obligatorios del Padrón municipal se cederán a otras Administraciones Públicas que lo soliciten sin consentimiento previo del afectado solamente cuando les sean necesarios para el ejercicio de sus respectivas





betetzeko beharrezkoak badira, eta bizilekua edo egoitza datu esanguratsuak diren gaietarako soil-soilik.»

Gainera, udal errolda datu pertsonalak biltzen dituen erregistro administratibo bat denez gero, nahitaez bete behar ditu bai Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679/EB Erregelamendua, aurrerantzean DBEO) eta bai abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

DBEOren 6.1.e) artikulua arabera, datu pertsonalen tratamendua zilegi izango da baldin eta beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. Tratamendu horren oinarria lege mailako arau batek ezarri behar du, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa 8.2 artikuluan dioenaren arabera, eta kasu honetarako, oinarri hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorren 92. eta 93. artikulua izango lirake.

Dena den, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.3 artikulua interpretazioari dagokionez, Datuak Babesteko Bulegoak dio Erroldatik laga daitezkeen datu bakarrak helbidearenak direla, eta, gainera, horretarako, datuak eskatzen dituen Administrazio Publikoak zerrendatu behar duela zer pertsonari dagokionez jakin behar duen helbidea edo egoitza bere eskumenak betetzeko, bat eginez horrela DBEOren 5.1.c) artikuluan datuak minimizatzeke ezarritako printzipioarekin. Hain zuzen ere, printzipio hori betetzen da INEk internet bidez eskaintzen duen kontsulta zerbitzuaz baliatuta.

Alabaina, BFOk beharrezkoa du, baita ere, bere lurralde historikoan erroldatuta dauden guztiak biltzen dituen fitxategi bat edukitzea zerga erroldak osatu eta mantentzeko. Eskumen hori Zergen Foru Arau Orokorrean du aitortua, eta, horri esker, Ogasunak kontrol lanak burutu ditzake, bai eta

competencias, y exclusivamente para asuntos en los que la residencia o el domicilio sean datos relevantes”.

Además, el Padrón municipal al ser un registro administrativo que contiene datos personales se encuentra sometido al Reglamento General de Protección de Datos (Reglamento (UE) 2016/679, en adelante RGPD) y a la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

En virtud del artículo 6.1.e) del RGPD el tratamiento de datos personales será lícito cuando sea necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento, debiendo estar establecida la base para el tratamiento en una norma con rango de ley, según lo previsto en el artículo 8.2 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, que para este caso serían los artículos 92 y 93 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo de 2005, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

No obstante, por lo que se refiere a la interpretación del artículo 16.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, según la Agencia de Protección de Datos, los datos del Padrón que pueden cederse son únicamente los relativos al domicilio y además para ello la Administración Pública solicitante debe facilitar, la relación de personas sobre las que necesite el domicilio o residencia para el ejercicio de sus competencias, en concordancia con el principio de minimización de los datos establecido en el artículo 5.1.c del RGPD, lo cual se satisface mediante la utilización del servicio web de consulta ofrecido por el INE.

Ahora bien la HFB necesita además un fichero con la totalidad de los empadronados en su territorio histórico, a los efectos de la elaboración/mantenimiento de los censos tributarios, competencia reconocida en la Norma Foral General Tributaria a la HFB, que permite realizar tareas de





informazio jarduketetan eta zergadunak parte diren zerga prozeduretan identifikazioak eta jakinarazpenak egin ere.

Erroldako informazioa funtsezkoa da zerga erroldak behar bezala mantentzeko; izan ere, harekin balioztatze prozesuak egin daitezke bai herritarren altak beren helbideari eta jaiotegunari buruzko datuekin egiteko, bai BFOOn dagoeneko erroldatuta dauden herritarren jaioteguna eta helbidea eguneratzeko. Hortaz, erroldako informazioak ahalbidetzen du zerga erroldetako datuak kontrastatzea, erroldetako betebeharrak formaletan izan daitezkeen ez-betetzeak atzematea, eta tributuen aplikatzeko prozedura guztiak BFOOn elikatzen dituzten errolden kalitatea bermatzea.

Zerga errolda horiek ezinbestekoak dira BFOk esleituak dituen eskumenak baliatzeko, eta egoitzari eta jaiotegunari buruzko datuak datu garrantzitsuak dira. Eta hori aintzat hartzekoa da, baita ere, Ekonomia Ituneko konexio puntuak aplikatuz BFOren eskumenen eremuan sartzen diren pertsona fisiko guztiei dagokienez.

Datu horien garrantzi tributarioa ageri-agerikoa da, haien helburua zerga sistemaren aplikazioa baita: zerga sistema aplikatzeko, eta horretarako bakarrik, dira beharrezkoak. Gainera, helburua lortzeko ez dago neurri moderatuagorik, antzeko fidagarritasuna duen tresna alternatiborik ez dagoelako. Eta neurria proportzionala da, Konstituzioak babesten duen ondasun batean gorpuzten baita interes orokorra: bermatzea gastu publikoei aurre egiten laguntzen dela.

Orobat, kontuan izan behar da ezen, Toki Entitateetako Biztanleen eta Lurralde Mugaketaren Erregelamenduak, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, otsailaren 6ko 141/2024 Errege Dekretuak emandako idazketan,

control, así como identificar y notificar en las actuaciones de información y en los procedimientos tributarios en los que sean parte los contribuyentes.

La información padronal es fundamental para el correcto mantenimiento de los censos tributarios, al permitir realizar procesos de validación que dan por resultado el alta de ciudadanos con sus correspondientes datos de domicilio y fecha de nacimiento; así como la incorporación de la fecha de nacimiento y de domicilios actualizados de ciudadanos ya censados en la HFB. Por tanto, la información padronal permite contrastar los datos que figuran en los censos tributarios y detectar posibles incumplimientos de obligaciones formales de tipo censal, garantizando una alta calidad de los censos de los que se nutren todos los procedimientos de aplicación de los tributos en la HFB.

Dichos censos tributarios son imprescindibles para el ejercicio de las competencias que tiene atribuida la HFB, y los datos sobre el domicilio y fecha de nacimiento son datos relevantes. Ello es predicable sobre todas las personas físicas que entran en el ámbito competencial de la HFB en aplicación de los puntos de conexión del Concierto Económico.

La trascendencia tributaria de estos datos es evidente, puesto que la finalidad de los mismos es la aplicación del sistema tributario: son necesarios para la aplicación del sistema tributario y solamente para esa finalidad. Además, no existe una medida más moderada para lograr el objetivo, puesto que no hay un instrumento alternativo que tenga una fiabilidad equivalente. Y se trata de una medida proporcional, desde el momento en que el interés general se concreta en un bien constitucionalmente protegido, como es la garantía de la adecuada contribución al sostenimiento de los gastos públicos.

También, se ha de tener en cuenta que de conformidad con lo establecido por el artículo 83.3 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades locales, aprobado por el Real Decreto





honako hau ezartzen duela 83.3 artikuluan:
"Estatistikako Institutu Nazionalaren esku dauden errola-datuak ezin izango dira oinarri izan 61. artikuluan araututako errolatze-ziurtagiriak edo -txartelak emateko, nahiz eta datuen bitartekotza-plataformetan... erabili ahal izango diren bizilekua egiaztatzea eskatzen duten administrazio-prozeduren izapidetzea errazteko. (...)".

III

Horrenbestez, juridikoki egokia izanik, eta kontuan hartuta administrazio publikoen arteko harremanetan nagusi izan behar duen elkarrekiko lankidetzaren printzipioa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141.c) artikuluan ezarritakoa, bi aldeek onartu behar dituzte oso onuragarria izango litzatekeela INEK BFORi erroldako informazioa lagatzeko sistema egonkor eta aldizkako bat adostea, xede tributarioetarako erabiliko dena, lagapen hori ahalik eta modurik efizienteenean bete dadin indarrean dagoen lege esparruaren barruan

Testuinguru horretan Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak eta Statistikako Institutu Nazionalak lehen hitzarmen bat sinatu zuten 2020ko uztailaren 27an Statistikako Institutu Nazionalaren errolda-basearekiko irispidea gauzatzeko; hitzarmen hori 2020ko abuztuaren 13an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) eta bere indarraldia 2024ko abuztuaren 13n amaitu zen, eta oraingo honetan alderdiek mantendu eta eguneratu egin nahi dute,

Beste alde batetik, errolda-kontsulten web-zerbitzuak (SECOPA) Estatuko Administrazio Orokorraren Datuen Bitartekotzarako Plataforman daude eskuragarri. Plataforma hori Administrazio Digitalaren Idazkaritza Nagusiak kudeatzen du, eta INEK bere errolda-baserako sarrera guztiak bateratu nahi ditu plataforma horren bidez.

Hori guztia dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Statistikako

1690/1986, de 11 de julio, en su redacción dada por el Real Decreto 141/2024, de 6 de febrero: "Los datos de los padrones que obren en poder del Instituto Nacional de Estadística no podrán servir de base para la expedición de certificaciones o volantes de empadronamiento regulados en el artículo 61, si bien podrán utilizarse en las plataformas de intermediación de datos... para facilitar la tramitación de los procedimientos administrativos en los que se requiera acreditar la residencia. (...)".

III

En consecuencia, siendo jurídicamente procedente, y teniendo en cuenta el principio de colaboración mutua que debe presidir las relaciones entre las Administraciones Públicas conforme establece el artículo 141.c) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, los representantes de ambas partes consideran que sería muy beneficioso, acordar un sistema estable y periódico de cesión de información padronal por parte del INE a la HFB para su utilización con fines tributarios, de forma que se lleve a cabo de la forma más eficiente posible en el marco legalmente vigente.

En este contexto, el 27 de julio de 2020, se firmó un convenio entre el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia y el Instituto Nacional de Estadística para el acceso a la base de Padrón del Instituto Nacional de Estadística, publicado en el Boletín Oficial del Estado (BOE), con fecha 13 de agosto de 2020, cuya vigencia finalizó el 13 de agosto de 2024, que las partes desean mantener.

Por otra parte, los servicios web de consultas padronales, SECOPA, se encuentran disponibles en la Plataforma de Intermediación de Datos de la Administración General del Estado, gestionada por la Secretaría General de Administración Digital, y el INE desea unificar todos los accesos a su base padronal a través de la citada Plataforma.

Por todo ello, el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia y el





Instituto Nazionalak adosten dute Lankidetzaren Hitzarmen hau izenpetzea, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehena.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da lankidetzaren esparru egonkor bat arautzea INEk kudeatzen duen Erroldako Datu-Basetik BFOri egingo zaion informazio lagapenaren edukia, baldintzak eta prozedurak ezartzeko. Lagapen hori dauden errolda-kontsulten web-zerbitzuen (SECOPA) bidez egingo da; zerbitzu horiei esker Bizkaiko Foru Ogasuneko organoek Errolda-Base horretara banakako kontsulten bidez sartzeko aukera izango dute egoitza Bizkaitik kanpo ere eduki dezaketenez zergapekoen egungo helbideari buruzko datua lortzeko, bai eta, hala badagokio, bizikidetzari buruzko informazioa eta informazio historikoa ere, informazioa laga daiteke sei hilean behin fitxategi bat bidaliz eta fitxategi horren barruan lurralde historikoak INEren Erroldako datu basean inskribatuak dituen guztiei buruzko informazioa jasoz. Bi prozedura horietako edozein erabilita INEtik BFOra egiten den informazio lagapenak foru zerga sistema eraginkortasunez aplikatzea izango du helburu bakarra.

Bigarrena.- Erroldako Datu Basea kontsultatzeko web zerbitzuaren ezaugarriak.

1.- Estatistikako Instituto Nazionalak, hitzarmen honetan ezarritako lankidetzaren esparruan, BFOren esku jarriko ditu Erroldako Datu-Basea (SECOPA) kontsultatzeko web-zerbitzuak, hau da, gaur egungo bizilekuari buruzko banakako kontsulta, egungo bizikidetzaren historia eta udalerrien historia, baimendutako erabiltzaileek Datuen Bitartekaritzarako Plataformaren (PID) bidez eskura ditzaten.



Instituto Nacional de Estadística acuerdan celebrar el presente Convenio que se regirá por las siguientes:

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del Convenio.

